

**PUNTUEUS FUNDAZIOAREN KONTRATAZIORAKO
BARNE-JARRAIBIDEAK**

2015-06-02

EDUKIA

1. XEDAPEN OROKORRAK.....	3
1.1. Sarrera	3
1.2. Izaera juridikoa	3
2. HELBURUA ETA IRISMENA.....	3
3. KONTRATAZIO-ARLOKO ARAUBIDE JURIDIKOA.....	4
4. KONTRATAZIOAREN PRINTZPIO OROKORRAK.....	5
5. KONTRATAZIO-PROZEDURAREN PARTEAK ETA HAIEN AHALMENA	6
5.1. Kontratazio-organoa	6
5.2. Kontratzailearen profila	6
5.3. Kontratatzeko ahalmena	6
6. KONTRATAZIORAKO BARNE-PROZEDURA	7
6.1. Zuzeneko esleipena	7
6.2. Prozedura negoziatu eta publizitadedunaren bidezko esleipena.....	7
6.3. Prozedura ireki bidezko esleipena	8
6.4. Beste prozedura batzuk	10
7. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA ETA EDUKIA.....	11
8. INDARREAN JARTZEA, INTERPRETAZIOA ETA ALDAKETAK	12
9. JURISDIKZIO ESKUDUNA	12

1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1. Sarrera

PuntuEus Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatu bat da. 2012ko maiatzean, PuntuEus Fundazioak .EUS domeinua onartzeko eskaera aurkeztu zuen, eta kontratua sinatu zuen ICANNekin 2013ko abenduan.

Horrenbestez, PuntuEus Fundazioa .EUS domeinua kontrolatzeaz, administratzeaz eta kudeatzeaz arduratzen da.

1.2. Izaera juridikoa

PuntuEUS Fundazioa irabazi-asmorik gabeko fundazio bat da, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen eta aplikatu dakioken estatuko eta erkidegoko gainerako legedi osagarriaren babesean eratua. Nortasun juridiko propioa du, eta jarduteko gaitasun osoa du, bereak dituen eta bere sorrerako estatutuetan agertzen diren xedeak betetzeko.

2. HELBURUA ETA IRISMENA

Kontrataziorako barne-jarraibide hauen (aurrerantzean, KBJk edo Jarraibideak, bata zein bestea) helburua da arauketa harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak esleitzeko PuntuEUS Fundazioak dituen barne-prozedurak arautzea, esleipen hori sektore publikoko kontratazioaren printzipio gidariekin bat datorrela bermatzeko, bereziki printzipio hauekin: lehiaketetan parte hartzeko askatasuna, prozeduren publikitatea eta gardentasuna, hautagaien arteko berdintasuna eta diskriminaziorik eza, konfidentziasuna, lehia askearen babesa eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza hautatzea.

Jarraibide hauek aplikatuko zaizkie PuntuEUS Fundazioak egingo dituen kostu bidezko kontratuei, edozein dela ere haien izaera juridikoa. KBJk nahitaez bete beharrekoak dira PuntuEUS Fundazioaren barruan, eta kontratatzailearen profilean argitaratu behar dira.

Hala ere, Jarraibide hauetatik kanpo geratzen dira honako negozio eta kontratu hauek, beren arau bereziak baitituzte:

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren (SPKLTB) 4. artikuluan agertzen diren kontratuak eta negozioak.

- Arauketa harmonizatuaren mendeko kontratuak (aurrerantzean, AHM kontratuak), SPKLTBren 13. artikulua eta harekin bat datozenen arabera; halakoak SPKLTBren 190. artikuluan ezarritakoaren arabera esleituko dira.
- Arauketa harmonizatu baten mendeko eta diruz lagundutako kontratuak, SPKLTBren 17. artikulua eta harekin bat datozenen arabera; halakoak SPKLTBren 190. artikuluan ezarritakoaren arabera esleituko dira.
- Sektoreko araudi aplikagarriak arautzen dituen edo berariaz salbuesten dituen kontratuak eta negozioak; halakoak araudi horrek ezartzen duenaren arabera esleituko dira.
- Kontratu salbuetsiak, salbuespena behar bezala justifikatuta baldin badago: izaera edo helburu berezia izateagatik hornitzaile batek bakarrik eman ditzakeenak, dela eskusiba-arrazoiengatik, dela beste arrazoi justifikatu batzuegatik, edozein dela ere zenbatekoa.
- Lan-araudiak arautzen dituen kontratuak.
- PuntuEUS Fundazioak sinatzen dituen lankidetzak-hitzarmenak eta -akordioak.

Jarraibide hauek PuntuEUS Fundazioaren patronatuak onartu ditu 2015eko ekainaren 1ean. Onartu diren data berean jartzen dira indarrean, eta data horretatik aurrerako kontratazio-prozedurei aplikatu behar zaizkie.

3. KONTRATAZIO-ARLOKO ARAUBIDE JURIDIKOA

PuntuEUS Fundazioak egiten dituen kontratuak, nolahi ere, kontratu pribatuak izango dira, eta arauketa harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak egiten dituzten sektore publikoko erakundeentzat nahitaez bete beharrekoak diren SPKLTBren xedapenek arautuko dituzte.

Bereziki, kontratuak prestatzeari eta esleitzeari dagokionez, PuntuEUS Fundazioak Jarraibide hauei, SPKLTBri eta haren garapen-xedapenei jarraituko die, eta, horien osagarri gisa, zuzenbide administratiboaren gainerako arauak edo, hala badagokio, zuzenbide pribatuaren arauak aplikatuko dira. Kontratuen xedeei, betetzeari eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuak arautuko ditu kontratu hauek.

4. KONTRATAZIOAREN PRINTZIO OROKORRAK

PuntuEUS Fundazioaren kontratazio-prozedura printzipio hauen mende dago: publizitatea, lehia, gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

Sektore publikoko kontratazioa arautzen duten printzipio horiek aplikatzen direla bermatzearren, printzipio horiek betetzat joko dira jarraian zehazten diren jarraibideei jarraikiz:

- a) **Publizitate- eta lehia-printzipioak** bete direla joko da PuntuEUS Fundazioaren kontratu-informazioa hedatzen bada eta merkatua lehiakideei irekitzeko aukera ematen badute. Horretarako, publizitate-printzipioa bete dela joko da 6.000 euro baino gehiagoko lehiaketak kontratatzailearen profilean argitaratzen badira, hargatik eragotzi gabe egokitzen diren bestelako hedapen-modalitate batzuk (ordezkoak edo gehigarriak) erabiltzea, SPKLTBren 169. artikulutik 175.era bitartekoetan sartutako publizitate-kasu salbuetsiak izan ezik.
- b) **Gardentasun-printzipioa** bete dela joko da lizitatzailerik izan daitezkeenek parte hartzeko aukera izan dezaten errazten bada dagokion kontratua esleitu aurretik, informazio egokia eman ez interesa duen orok aukera izan dezan parte hartzeko eta kontratazio-arauak aldeztu aurretik jakiteko.
- c) **Konfidentzialtasun-printzipioa** bete dela joko da PuntuEUS Fundazioak zein esleipen bakoitza irabazten duen kontratistak ez badute zabaltzen konfidentziaz jotzen den informazioa edo baldintza-errietan edo kontratuan izaera konfidentziala eman zaion kontratu bat gauzatzean eskuratzen duten informazioa, haren izaeragatik konfidentzial gisa tratatu beharrekoa.
- d) **Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa** bermatzeko, prozeduren inpartzialtasuna eta ekitatea bermatzen duten beharrezko neurriak hartuko dira. Neurri horien artean, hauek egongo dira gutxienez:
 - I. Kontratuen xedea modu ez diskriminatzaile batean deskribatuko da beti. Ezingo da aipatu fabrikazio edo jatorri jakinik, produktu jakinik edo marka, patente, mota, jatorri edo ekoizpen jakinik, baldin eta horrelako aipamen bat ez badago behar bezala justifikatuta eta alboan "edo baliokidea" aipamena ez badu.
 - II. Hautagaiei eskatzen bazaie aurkeztu ditzatela tituluak, ziurtagiriak edo bestelako dokumentazio justifikatzailea, Europar Batasuneko kide diren

beste estatu batzuetatik datozen dokumentuak onartu egin behar dira tituluaren, ziurtagirien eta bestelako diplomen elkarrekiko aitopenen printzipioaren arabera.

- III. Eskaintzak aurkezteko epeak behar bezain luzeak izan behar dute Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetako enpresek ebaluazio egoki bat egin eta eskaintza bat aurkeztu ahal izan dezaten.
- IV. Esleipen-prozedura batean lizitatzailerik bat baino gehiago aurkezten bada, PuntuEUS Fundazioak bermatuko du denek informazio bera izango dutela kontratuari buruz baldintza berberetan.

5. KONTRATAZIO-PROZEDURAREN PARTEAK ETA HAIEN AHALMENA

5.1. Kontratazio-organoa

Kontratazio-organoa kasu bakoitzean zehaztuko da estatutuetan eta PuntuEUS Fundazioari aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe beste organo batzuei eskuordetze edo ahalordetzeak baliotasunez ematea.

5.2. Kontratatzaileraren profila

Kontratazio-organoak, gardentasuna ziurtatzearen eta PuntuEUS Fundazioaren kontratu-jarduerari buruzko informazioa publikoki eskuratzea bermatzearen, kontratatzaileraren profila argitaratuko du fundazioaren webgune instituzionalean. Hor, PuntuEUS Fundazioak egingo dituen kontratazio-prozedurei eragin diezaikeen informazio guztia jasoko da, Jarraibide hauek edo legeak hala eskatzen badute.

5.3. Kontratatzeko ahalmena

5.3.1. PuntuEUS Fundazioarekin kontratatze gaitasun-alderdi orokorrak

PuntuEUS Fundazioarekin kontrata dezakete jarduteko gaitasuna duten pertsona natural edo juridikoen, kontratatze debekurik ez dutenek, eta ekonomikoki, finantzarioki eta teknikoki edo profesionalki kaudimendunak direla ziurtatzen dutenek, edo behar bezala sailkatuta daudenek.

Era berean, kontratuak xede duen jarduera edo zerbitzua emateko eska dakiekeen enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala izan behar dute enpresaburuek.

Kasu bakoitzean eskatuko diren gutxieneko gaitasun- eta kaudimen-baldintzek kontratuaren xedeari lotuta egon behar dute, eta harekiko proportzionalak izan behar dute.

5.3.2. Kontratatzeko gaitasuna egiaztatzea

Sektore publikoko erakunde guztiei aplikatzekoak diren SPKLTBren xedapenak baztertu gabe, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatuko da kasu bakoitzean dagokion lizitazioan kontratuaren egoerei eta ezaugarriei buruz zehazten denaren arabera.

Enpresaburuak bete behar dituen gutxieneko kaudimen-baldintzak eta haiek egiaztatzeko zer dokumentazio behar den lizitazioaren iragarkian adieraziko dira eta kontratuaren baldintza-orrian zehaztuko dira, Jarraibide hauen arabera eskagarriak baldin badira.

5.3.3. Bermeak

PuntuEUS Fundazioak, egokitzen joz gero, berme bat eska diezaietke lizitatuzaileei edo hautagaiei, esleipendunari kontratua behin-behinekoz eta, hala badagokio, behin betiko esleitu bitartean eskaintzei euts diezaieten, zerbitzua behar bezala ematea ziurtatzeko.

6. KONTRATAZIORAKO BARNE-PROZEDURA

PuntuEUS Fundazioaren kontrataziorako barne-prozedura kontratuen zenbatekoaren arabera sailkatzen da, eta horren arabera ezartzen dira kontratu bakoitzaren esleipenari aplikatzekoak diren prozedurak eta baldintzak. Nolanahi ere, jotzen da zenbatekoek ez dutela BEZa barne hartzen.

6.1. Zuzeneko esleipena

Jarduteko gaitasuna duen eta behar den gaikuntza profesionala duen edozein enpresabururi zuzenean esleiri dakizkioke 6.000 euro baino gutxiagoko balioa kalkulatzeko zaien zerbitzuen eta hornikuntzen kontratuak, eta 50.000 euro baino gutxiagoko balioa kalkulatzeko zaien obra-kontratuak.

Kontratazioaren arduradunak enpresa bakar bati eskatuko dio eskaintza, eta hari egingo dio esleipena zuzenean. Kontratu horiek formalizatzeko, nahikoa izango da espedientean jasotzea onartu direla gastua eta dagokion faktura.

6.2. Prozedura negoziatu eta publizitadedunaren bidezko esleipena

Prozedura negoziatu eta publizitadedunaren bidez izapidetuko dira 50.000 euroko edo gehiagoko eta 200.000 euro baino gutxiagoko zenbatekoa duten obra-kontratuak, eta

6.000 euroko edo gehiagoko eta 18.000 euro baino gutxiagoko zenbatekoa duten gainerako kontratuak.

Prozedura negoziatu eta publizitadeduna arau hauei jarraikiz izapidetuko da:

- PuntuEUS Fundazioak dokumentu bat prestatuko du, eta, hor, alderdi hauek zehaztuko dira gutxienez:
 - Kontratuaren helburua eta irismena.
 - Eskaintzek eta lizitatzailleek lizitazioan parte hartzeko bete behar dituzten baldintzak edo ezaugarriak.
 - Eskaintzak balioztatzeko irizpideak.
- Kontratatzaillearen profileen lizitazio-iragarki bat argitaratuko da, egokitzen jo daitezkeen bestelako publizitate-mekanismoak baztertu gabe.
- Ahal den heinean, kontratua gauzatzeko gai diren hiru enpresari —gutxienez— eskatuko zaie eskaintza. Nolanahi ere, eskaintza enpresa bakar bati eska daskioke baldin eta, arrazoi tekniko edo artistikoengatik edo eskusiba-eskubideak babesteari lotutako arrazoiengatik, kontratua enpresaburu jakin bati bakarrik esleibadaskioke.
- PuntuEUS Fundazioak negoziatzaileekin kontratuaren edozein alderdi, eta, negoziatzaileekin irauten duen bitartean, zainduko du lizitatzaille guztiek tratua bera jasozaten, eta ez du emango informazioa modu diskriminatzailean.
- Eskaintzak jasoz ondoren, ekonomikoki onuragarriena den hura hautatuko da, eta jasota geratuko da zer eskaintza jasoz diren eta zergatik onartu edo baztertu diren.
- Esleipena parte hartu duten hornitzaile guztiei jakinaraziko zaie, eskaintzak eskatzeko unean aurreikusitako moduan.

6.3. Prozedura ireki bidezko esleipena

Prozedura ireki bidez izapidetuko dira 200.000 euroko edo gehiagoko zenbatekoa duten obra-kontratuak, eta 18.000 euroko edo gehiagoko zenbatekoa duten gainerako kontratuak.

Prozedura irekia arau hauei jarraikiz izapidetuko da:

- Kontratu horiek esleitzeko, PuntuEUS Fundazioak kontratazio-prozedura bat hasiko du, eta hor eskaintza bat aurkeztu dezakete fundazioarekin kontratatzeko gaitasuna duten lizitatzaille interesdun guztiek.

- 18.000 euro baino gehiagoko eta 30.000 euro baino gutxiagoko zenbatekoa duten kontratuen kasuan, PuntuEUS Fundazioak dokumentu bat prestatuko du, eta, hor, alderdi hauek zehaztuko dira gutxienez:
 - Kontratuaren helburua eta irismena.
 - Eskaintzek eta lizitatzailerek lizitazioan parte hartzeko bete behar dituzten baldintzak edo ezaugarriak.
 - Eskaintzak balioztatzeko irizpideak.
- 30.000 euroko edo gehiagoko zenbatekoa duten kontratuen kasuan, PuntuEUS Fundazioak klausula administratiboen baldintza-orri bat egingo du, eta, hor, kontratuaren oinarritzko ezaugarriak jasoko dira, eta, bereziki, eta gutxienez, eduki hau:
 - Kontratuaren oinarritzko ezaugarriak: kontratuaren helburua.
 - Lizitazioaren oinarri-aurrekontua.
 - Kontratuaren eta, hala badagokio, luzapenen iraupena.
 - Kontratua esleitzeko prozedura.
 - Eskaintzak aurkezteko modua eta epea.
 - Kontrataren gaitasunaren eta kaudimenaren egiaztapena.
 - Esleitzeko irizpideak eta haien ponderazioa.
 - Kontratuaren formalizazioa.
 - Kontratua jasotzea, eta, hala badagokio, kontratatutako zerbitzuaren berme-epea.
 - Prezioaren ordainketa.
 - Lagatzeko eta azpikontratatzeko aukerak.
 - Lan-kontratu etako subrogazio-baldintzak.
 - Atzerapenagatiko eta kontratua gauzatzean akatsak egiteagatiko zigorrak.

Era berean, PuntuEUS Fundazioak baldintza teknikoaren orri bat prestatuko du, eta, hor, kasu bakoitzean kontratua gauzatzeko eta garatzeko behar diren zehaztapen teknikoak zehaztuko dira.

Halaber, kasu bada, enprekin negoziatuko diren alderdi ekonomiko eta teknikoak adieraziko dira.

Sar daitezke aurrekoak ez diren beste baldintza batzuk, betiere laugarren klausulan zerrendatutako printzipioak betetzen direla bermatzen badute.

- Kontratatzailearen profilean lizitazio-iragarki bat argitaratuko da, egokitzat jo daitezkeen bestelako publizitate-mekanismoak baztertu gabe.
Lizitazio-iragarkiak eduki hau izan behar du: esleitzekoa den kontratuaren oinarritzko ezaugarrien deskribapen labur bat, eta, kasua bada, lizitatzailleekin negoziatuko diren alderdi ekonomiko eta teknikoak.
- Eskaintzak jaso ondoren, kalifikatu egingo da aurkeztutako dokumentazioa, balioztatu egingo dira jasotako eskaintzak, eta ekonomikoki onuragarriena den hura hautatuko da, eta jasota geratuko da zer gonbidapen egin diren, eta, kasua bada, zer eskaintza jaso diren eta zergatik onartu edo baztertu diren.
PuntuEUS Fundazioaren ekipamenduek ezaugarri tekniko bereziak dituztenez, kontratazio-organoak egokitzat jotzen dituen txosten teknikoak eska ditzake.
- Kontratua ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleitzeko zaio, baldintza-orian ezarritako irizpide ekonomiko eta/edo teknikoei jarraikiz. Balioztapen-irizpide bakarria egongo balitz, horrek prezioa izan behar du nahitaez.
- Esleipena lizitatzaille guztiei jakinaraziko zaie lizitazio-iragarkian eta/edo baldintza-orian adierazitako moduan, eta PuntuEUS Fundazioaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Esleipendunari kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa eskatuko zaio.

Prozedura irekia lehenetsiko bada ere, kontratuaren ezaugarriak ikusirik, eta kasua bada, PuntuEUS Fundazioak prozedura negoziatu bat izapidetu ahal izango du —horretarako, gutxienez hiru lizitatzaileri gonbita egingo die eskaintza bat aurkeztu dezaten, baldin eta hori posible bada—, edo prozedura mugatu bat izapidetu ahal izango du —horretarako, zainduko du lizitatzaille guztiek tratua bera jaso dezaten, eta ez du emango informazioa modu diskriminatzailean—.

6.4. Beste prozedura batzuk

PuntuEUS Fundazioak beste esleipen-prozedura batzuetara jo dezake, esparru-akordioak burutu ditzake, sistema dinamikoak antola ditzake, edo obren, zerbitzuen eta hornikuntzen kontratazioa zerbitzuetan edo beste elkarte edo erakunde batzuetan zentraliza dezake SPKLTBren 148. artikuluari eta 194-207 artikuluei jarraikiz. Horretarako, kasu bakoitzean, KBJ hauen ondoriozko egokitzapenak aplikatuko dira.

7. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA ETA EDUKIA

7.1. PuntuEUS Fundazioak egingo dituen eta Jarraibide hauen mende dauden kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, baldin eta ez badaude jasota baldintza-orrian edo, kasua bada, egin den baldintzen dokumentuan:

- a) Aldeen identifikazioa.
- b) Kontratuaren helburuaren definizioa.
- c) Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda.
- d) Egiazko prezioa edo hura zehazteko modua.
- e) Iraupena, eta gutxi gorabeherako hasiera- eta amaiera-datak. Luzapenak eta haien datak, aurreikusita baleude.
- f) Zerbitzuak emateko eta jasotzeko baldintzak.
- g) Ordainketa-baldintzak.
- h) Zer kasutan desegin daitekeen kontratua.
- i) Kasu bakoitzean kontratistari ezarritako konfidentzialtasun-betebeharraren denborazko luzapen objektiboa.

Zuzenean esleitutako kontratuak formaliza daitezke dagokion aurrekontua bidaliz eta hura onartu dela idatziz jakinaraziz.

7.2. Oro har, kontratista hautatu eta, gehienez, hamabost egun naturaleko epean formalizatuko da kontratua, betiere baldintza-orrietan edo dagozkion eskaintzetan ez bada beste epe bat zehaztu.

7.3. PuntuEUS Fundazioak kontratua onartzen duela jakinaraziko du kontratua formalizatuz; hala, kontratua gauzatuta dagoela joko da.

7.4. Eskaintzarako egingo den baldintzen dokumentua —kasua bada— edo PuntuEUS Fundazioak egindako baldintza-orria eta lizitatzailer esleipendunaren eskaintza kontratuaren parte izango dira.

7.5. Kontratu-dokumentuak ezin ditu jaso baldintza-orrian edo baldintzen dokumentuan aldeentzat aurreikusten direnez bestelako eskubide eta betebeharririk; horiek, hala badagokio, esleipendunaren eskaintzaren arabera zehaztuko dira.

8. INDARREAN JARTZEA, INTERPRETAZIOA ETA ALDAKETAK

Jarraibide hauek, fundazioaren patronatuak onartu ondoren, indarrean jarriko dira PuntuEUS Fundazioaren kontratatzailearen profileen argitaratu eta hurrengo egunean. Jarraibide hauek interpretatzea, lege-egoera edo kontratu-kasu berrietara egokitzea eta haiek argitzea Jarraibide hauek onartzeaz arduratzen den erakundeko organoari dagokio. Jarraibide hauetan ezarritako zenbatekoak eta kopuruak, lege-araudi aplikagarrian oinarritzen diren heinean, automatikoki eguneratutzat joko dira indarrean dauden arau horiek aldatzen badira.

9. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jarraibide hauek aipatzen dituzten kontratuen prestaketa, esleipena, eraginak, betetzea eta desegitearekin zerikusia duten auzigaiak erabakitzeke jurisdikzio-ordena eskuduna jurisdikzio-ordena zibila da.